Gozatu

# udaberriko oporretan

irakurtzen eta jolasean

# 2026



EIBAR
Juan San Martin Liburutegia
Biblioteca Juan San Martín

EIBAR
Euskara

# Kaixo, Familia:

Eibarko Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Juan San Martin Udal Liburutegiak opor garaian familian euskaraz gozatzeko moduko liburu gomendioak eta jolasak proposatzen dizkizuegu.
Opor garaian seme-alabekin egoteko denbora gehiago dugunez, euskara eta irakurmena indartzeko ere une egokia da.

Oporretan irakurri eta egin jolas elkarrekin!

GOZATU jolasean GOZATU irakurtzen

El Servicio de Euskera y la Biblioteca Municipal Juan San Martín os ofrecemos una selección de juegos y libros en euskera para disfrutar en familia durante las vacaciones.
Las vacaciones también son una buena época para ayudar a nuestros hijos e hijas a reforzar el euskera y la lectura mediante la diversión.

¡Las vacaciones son una buena ocasión para leer y jugar juntos/as!

Egin klik liburuen azaletan
katalogora joateko.
Bertan liburua non topatu
eta eskuragarri dagoen
ikus dezakezu



# 0-4 urte

01

*Benitoren teilatua*
Anuska Allepuz




02




*SuperLou*
Stephanie Blake

03

*Txirriki-Txarraka*
Amaia Egidazu Arrube




04




*Hartz nagia*
Mitxel Elortza ;
Eñaut Aiartzaguena

05

*Munstroak ere beldur dira*
Mauro Entrialgo



# 0-4 urte

06

*Uhin baten istorioa*

Muxi Garai Alonso ;
Mirari Sagarzazu




07




*Nire kapela nahi dut*

Jon Klassen

08

*Festa bat Txirritxirrirentzat*

Rodrigo Mattioli, Jon
Negrescolor




09




*Urte baten bueltan*

Mariana Ruiz Johnson

10

*Etxe bat Hartz Txikirentzat*

Britta Teckentrup



# 5-7 urte

*Amonaren txoria*
Benjii Davies

11







12

*Liburu on bat*
Amélie Javaux, Stefano Martinuz

13

*Kaixo, xomorro!*
Antton Kazabon, Jokin Mitxelena







14

*Andre biderkatua (edo zatikatua)*
Elena Losada, Amanda Mijangos

15

*Inoizko anaia nagusirik onenena*
Ben Mantle



# 5-7 urte

16

*Su txikian*

Olatz Mitxelena ; Irati Eguren







17

*Handi bezain txiki*

Arianna Squilloni ; Raquel Catalina

18

*Adiskideak*

Xabier eta Martin Etxeberria ; Aritz Trueba







19

*Ortzi-mugan*

Amaia Elizagoien Varela ; J. A. Perotxena Uranga

20

*Untxiki baso miresgarrian*

Xabier Olaso ; Jokin Mitxelena



# 8-11 urte

21

*Uhartea*
Armin Greder







22

*Ane eta Tom. Saltxisaurus Rex*
Juan Kruz Igerabide ; Antton Olariaga

23

*Benetako zirkua*
Karmele Mitxelena Etxebeste;
Bruno Hidalgo







24

*Arrakastaren bila*
Lur Gallastegi ; Alai Zubimendi

25

*Oraire*
Nerea Loiola



# 8-11 urte

26

*Anna Kopek eta ezpata bikingoa*

Haritz Larrageta ; Marko, Maëla







27

*Asfaltoaren azpian, lorea*

Mónica Rodríguez ; Rocío Araya

28

*Itzalak Kaz Madhanen*

Julio Santos ; Patricia Pérez







29

*Magia-eskola*

Ibon Martin ; Emmanuel Montiel

30

*Saria ala ziria?*

Itxaso Martin Zapirain ;
Eider Eibar



# + 12 urte

31

*Puf*

Alaia Martin Etxebeste ; Udane Ansa Iragorri







32

*Utzi kontatzen*

Laurie Halse Anderson

33

*Rara*

Irati Bediaga







34

*Sareak*

Eloy Moreno

35

*Aurpegiak*

Amaia Telleria



# + 12 urte

36

*Kobazuloa*

Jon Ander Urkiaga Egidazu







37

*Martin Martina eta gauekoak*

Amancay Gaztañaga ; Alain Martinez

38

*Maia : ganbara misteriotsua*

Haizea López







39

*Marteren semea*

Miren Gorrotxategi

40

*Lanbroetako zalduna*

Urtzi Leonet Santa Cruz ;
Iñaki G. Holgado



# komikiak

41

*Lily eta Dudu-munstroa*

Mic & Val




42




*Etxe Buru eta Zuhaitz Buru*

Scott Campbell

43

*Lutezian barrena*

L. d'Andréa, P. Clerc, O.  Serrano ; P. Fenech







44

*Argi ibili inguma lotiekin*

Scott Stuart

45

*Gauekoren aroa*

David Castelo Barrios



# komikiak




46

*Medium*
Xabier eta Martin Etxeberria Garro ; Iñaki Holgado




47

*Urrats handi bat*
Alice Oseman

48

*Otaku bat Jainko lanetan*
Rootport ; Tomomi Usui







49

*Buztan eta guzti*
Mizu Sahara

# JOLASAK

## BILBILI BONBOLO

**Animaliak aipatzen dituen haur kanta**

0 urte+

## NOLA JOLASTU?

Ume txikiekin abesteko moduko abestia da, keinuak egiteko aukera ematen duena. Abestu ahala, umeek keinuak egin ditzakete: “idiak dantza” esaten denean besoak jaso, dantzan bezala, eta “danbolina jo” esaten denean, esku batean danbolina eta bestean makila balute bezala egin.
Ume guztiek batera abes dezakete, eta elkarri begira keinuak ere errazago ikasiko dituzte. Ume txikia altzoan hartuta edo sehaska kanta moduan ere erabil daiteke.



Binbili bonbolo
sendo lo
akerra Frantzian balego
akerrak kanta,
idiak dantza,
ahuntzak danbolina jo!

# JOLASAK

## ATXIA-MOTXIA

**Elkarri hatzak harrapatzeko jolasa**

2 urte +

## NOLA JOLASTU?

**1.** Umeak binaka jarriko dira, lurrean eserita. Umeetako batek bi eskuak lurrean jarriko ditu: zabalik, esku-ahurra beheratz begira.
**2.** Umeek abestia abestuko dute, batek besteari banan-banan atzamarrak ukitzen dizkion bitartean (bestea geldi egongo da).
**3.** Abestiaren bukaera aldera, “hemen etxien zenbat hatz?” galdetuko dio hatzen jabeari. Eta hark zenbaki bat esan beharko du, 1etik 10era, nahi duena. Adibidez, “hamar hatz!”. Orduan, hatzak kontatzen hasiko da beste umea, banan-banan ukituz. 10 zenbakira iristen denean, beste umeari hatzen bat edo eskua harrapatu beharko dio, horixe baita jolasaren helburua.
**4.** Hatzen bat harrapatuz gero, “Kosk ala min?” galdetuko dio hatzaren jabeari, eta hark bietako bat esan behar du. “Kosk” esaten badu, kopetan kolpe txiki bat jasoko du, eta “min” esaten badu,
esku gainean atximurkada.



Atxia-motxia, pirulin pan,
nere semie errotan
Errota txikiñien klin-klan
Botikario, kalendario,
hemen etxien zenbat hatz?
X (zenbaki bat, batetik
hamarrera) hatz!
Kosk ala min?

# JOLASAK



## ARBOLATIK ARBOLARA

**Zuhaitz batetik bestera egiten den jolasa**

## ZER BEHAR DA?

Espazio zabala, eta, ahal dela, zuhaitzak daude toki bat. Toki perfektua: lauki bat osatzen duten lau zuhaitz izatea (hiruki bat osatzen duten hiru ere izan daitezke edo laukizuzen bat osatzen duten sei). Ezin bada, arbolen ordez beste zerbait erabil daiteke: lau zutabe, adibidez

## NOLA JOLASTU?

Aulki-jokoaren antzeko jolasa da hau, baina aulkien ordez zuhaitzak erabiltzen dira.

**1.** Lau zuhaitz aukeratu (lekuaren arabera, 5 edo 6 ere erabil daitezke), eta, jolasten hasi aurretik, zuhaitzak zein hurrenkeran "kenduko" diren erabaki (hor jarraituko dute, noski, baina ez dute "etxe" moduan balioko).

**2.** Jokalari kopurua zuhaitz kopurua gehi bat izango da: zuhaitzak 4 baldin badira, 5 lagun. Eta ume batek abestu egingo du. Horrenbestez, guztira 6 ume izango lirateke.

**3.** Ume bat erdiko puntuan jarriko da (zuhaitzek osatzen duten laukiaren edo laukizuzenaren erdian), eta kantatu egingo du, besteak bere inguruan bueltaka dituen bitartean. Posible da umeak arbolatik arbolara ibiltzea ere, ume horren inguruan izan gabe.

**4.** Kantatzen dagoen umeak zenbakiak esateari uzten dionean, eta, "txirrin txirrin-txirrin" esaten hasten denean, beste umeak zuhaitzak ikutzera joango dira (beste aukera bat: kantari dagoena isiltzen denean joan behar izatea zuhaitz bila). Zuhaitz gabe geratzen den umea jolasetik kanpora geratuko da.

**5.** Zuhaitz bat "kenduko" da, jada ez da "etxea" izango. Eta berriz abestuko du umeak. Lau jokalari egongo dira, eta hiru zuhaitz. Hurrengoan bi zuhaitz eta bukaeran bat.

**6.** Jokalari bakarra geratzen denean bukatuko da jolasa

# JOLASAK

## HARIA MATAZA

**Sokasaltorako aintzinako abestia**

4urte+

## ZER BEHAR DA?

Soka luze bat eta leku zabal bat.

## NOLA JOLASTU?

Bi lagunek sokari eragingo diote, eta guztiek batera kantatuko dute. Umeek txandaka egingo dute salto sokan, eta ahal den gehien iraun beharko dute saltoka.

Abestiaren bukaeran “haria” hitza errepikatzen da, eta sokari azkarrago eragingo zaio orduan, saltaginak huts egin arte.





Haria, mataza, loria
Haria, mataza
Haria!
Haria, mataza, loria
Haria! Haria!
Haria!...

# JOLASAK

## KASTORREAN EDO KRINKETEAN

**intxaurrak lurrean ilaran jarrita egiten den jolasa**

## ZER BEHAR DA?

Intxaur mordoxka eta hurra bat. Eta klariona, lurrean marrak marrazteko.

## NOLA JOLASTU?

**1.** Bi marra zuzen marraztu lurrean, bi errail, klarionarekin. Elkarren paralelo izan behar dute. Bi marren artean bi-hiru pausoko tartea egon daiteke.
**2.** Hasi aurretik, intxaurrak banatu behar dira. Jokalari denek intxaur kopuru bera izango dute (demagun, 5).
**3.** Jaurtitzen nor hasiko den erabakitzeko, lurrean marraztutako marra erabili. Jokalari denek intxaur bana jaurtiko dute, eta marratik ahalik eta gertuen geratu beharko da intxaurra, baina pasatu gabe. Gertuen uzten duena izango da jaurtitzen lehena.
**4.** Intxaurrak ilaran jarri, marraren gainean. Ilararen erdian Kastor jartzen da, hurra bat; aldamenetan intxaurrak. Elkarrengandik nahiko gertu egon behar dute intxaurrek, baina elkar ukitu gabe. Jokalari bakoitzak intxaur bat jarriko du (joka lari gutxi badira, bakoitzak bi).







# JOLASAK

## SAREAN DAUDENAK

**Ordenagailuan, tableteean edota mugikorrean jolasteko**



Animaliak

### ANIMALIAK

Irakurketa lantzeko animalien inguruko jolasa.

https://animaliak.onoff.es



### GURE LURRA

Umeei modu dibertigarrian birziklatzen irakasteko jolasak eta jarduerak.

https://gurelurra.eus/jolasak



### TXIRRITX KILKERRA

Ipuinak, puzzleak, memoria jolasak, etab.

https://txirritx.eus

**Juan San Martin Liburutegia**
**Tel. 943708437**
**liburutegia@eibar.eus**

https://www.eibar.eus/eu/kultura/jsm-liburutegia

**Euskara Zerbitzua**
**Tel. 943708426**
**euskara@eibar.eus**

https://www.eibar.eus/eu/eibarko-euskara/

**PORTALEA**
**Bista Eder, 10**
**20600 Eibar**

EIBAR
Udala | Ayuntamiento